

Elhuyar Hiztegien plugina LibreOffice/OpenOffice-erako

2014ko urria



EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA
Viceconsejería de Política Lingüística





Elhuyar Hiztegien plugina

LibreOffice/OpenOfficerako

1.Hasierakoak eta eskakizunak.....	3
2.Instalazioa.....	5
3.Nola erabili plugina.....	7

LibreOffice/OpenOfficerako

1. Hasierakoak eta eskakizunak


Eskuliburu honetan LibreOffice/OpenOfficen integratutako Elhuyar hiztegiak kontsultatzeko modua azalduko dugu. Bertsio honetan Elhuyar EU/ES Hiztegi elebiduna (Euskara-Gaztelania/Castellano-Vasco), Elhuyar EU/FR Hiztegi elebiduna (Euskara-Frantsesa/Français-Basque) eta Elhuyar EU/EN Hiztegi elebiduna (Euskara-Ingelesa/English-Basque) kontsulta daitezke.

Tresna honek euskarazko, gaztelaniazko, frantseseko edo ingeleseko hitz batek beste hizkuntza batean (euskara <-> gaztelania, euskara <-> ingelesa, euskara <-> frantsesa) dituen itzulpenak edo ordainak eskaintzen dizkio erabiltzaileari.

Plugin honek Windows, Linux eta Macetan funtzionatzen du, OpenOffice 4.x eta LibreOffice 4.x-tik aurrerako bertsioetan. Horretarako, beharrezkoa da Java JRE 1.6_27 edo berriagoa instalaturik izatea. Hemendik deskarga eta instala daiteke:

<http://www.oracle.com/technetwork/java/javase/downloads/jre7-downloads-1880261.html>

Behin Java instalatu ondoren, LibreOffice/OpenOfficen aktibatu behar da. Horretarako joan Tresnak-> Aukerak menura. Bertan aukeratu LibreOffice/OpenOffice-> Aurreratua atala, eta gehitu edo aukeratu JAVA JRE-aren kokapena.



LibreOffice/OpenOfficerako

Horrez gain, plugin honek lematizatzeke erabiltzen duen liburutegiak eskakizun ezberdinak ditu sistema eragile bakoitzean:

Linux:

- zlib1g / zlib1g-dev (libz.so)
- libc6 (libc.so)
- java-common
- libreoffice-java-common (OpenOfficen kasuan openoffice-java-common)

Mac:

- zlib (libz.1.dylib)
- libstdc++ (libstdc++.6.dylib)

Windows:

Ez du aparteko eskakizunik.


Eskakizun hauek bete ezean, lematizatzaileak ez du funtzionatuko. Hala ere, hiztegien kontsultak egin ahal izango dira, lematizaziorik gabe. Kasu horretan, kontsultak egiteko panelean errore mezu bat agertuko da, falta den eskakizuna zehaztuz.




LibreOffice/OpenOfficerako

2. Instalazioa


1. Instalazioa hasteko nahikoa da **hiztegiak.oxt** izeneko fitxategian klik bikoitza egitea eta plugina bere tokian instalatuko da. Horrela hasiko ez balitz, ireki LibreOffice/OpenOfficeko testu-dokumentu bat eta joan Tresnak -> Hedapenen Kudeatzailea menura.



2. Gehigarri bat gehitzeko, sakatu Gehitu botoia.



3. Arakatu Elhuyar Hiztegia deskargatu den karpetaraino eta aukeratu **hiztegiak.oxt** fitxategia.
4. Itxi LibreOffice/OpenOfficeko leiho guztiak eta berrabiarazi LibreOffice/OpenOffice. Tresna-barra berri bat agertuko da.



OHARRA: Tresna-barra zuzenean agertzen ez bada, joan Ikusi-> Trena-barrak menura, eta aktibatu bertatik Elhuyar Hiztegiak edo Osagarria x izena duen barra.

5. Desinstalatzeko, joan Gehigarrien Kudeatzailea menura, aukeratu Elhuyar Hiztegiak gehigarria eta sakatu Kendu botoia.


LibreOffice/OpenOfficerako

3. Nola erabili plugina

Hiztegiak kontsultatzeko hiru aukera daude:

1. Aukeratu hiztegiaren kontsultatu nahi d(it)uzun hitza(k) eta sakatu tresna-barran nahi duzun hizkuntza bikotea (eu>es, es>eu, eu>en, en>eu, eu>fr edo fr>eu)

2. Aukeratu hiztegiaren kontsultatu nahi d(it)uzun hitza(k). Ondoren, sakatu saguaren eskuineko botoia, aukeratu Elhuyar Hiztegiak eta ondoren hizkuntza-bikotea.



3. Aukeratu hiztegiaren kontsultatu nahi d(it)uzun hitza(k) eta sakatu kontsultatu nahi duzun hiztegiaren laster-marka.

HIZTEGIA	LASTER-MARKA
eu>es	Alt + 1
es>eu	Alt + 2
eu>en	Alt + 3
en>eu	Alt + 4
eu>fr	Alt + 5
fr>eu	Alt + 6

LibreOffice/OpenOfficerako

Hitza eta noranzkoa aukeratu ondoren kontsulta aparteko menu batean zabalduko da (Mac sistema eragilearen kasuan sistemako defektuzko nabigatzailean irekiko da). Menu honetan bilaketa gehiago egin daiteke zuzenean, hitza(k) eta noranzkoa aukeratu, eta lupa sakatuz.

Elhuyar Hiztegiak

hitza eu-es 🔍

hitz

eu > es

1 iz. **palabra**

- hitz hutsalak, merkeak, alferrak*: palabras vanas, baratas.
- hitz lohiak, lizunak*: palabras impuras, lascivas.
- irain-hitzak*: palabras injuriosas.
- hitzak ederrak, bihotza faltsu*: palabras hermosas, pero el corazón traicionero.
- hitz onak eta ezer gutxi gehiago*: buenas palabras y poco más.
- hitz zuriez jendea liluratzen*: fascinando a la gente con halagos.
- hitzik esan gabe*: sin decir palabra.
- hitzez azalduko dizut*: te lo explicaré con palabras.
- hitz polit eta goxoak*: piropos y lindezas.
- hitz gorriak*: blasfemias.
- hitz biziak eta minak*: palabras mordaces y picantes.
- hitz gaiztoak*: palabrotas.
- bost letrako hitza*: palabra de cinco letras.
- hitz gordinak, hitz itsusiak*: palabras malsonantes.

2 iz. (batez ere pl.) [norbaitek esandakoa] **palabra**

- ez dira nire hitzak*: no son palabras mías.
- Jainkoaren hitza*: palabra de Dios.

3 iz. (pl.) [abestiarena] **letra**

- musika M. Laboarena eta hitzak Hartzabalenak*: la música es de M. Laboa y la letra de Hartzabal.

4 iz. **palabra, promesa**

- ez du bere hitza bete*: no ha cumplido su palabra.

LASTER-MARKA

- Alt + 1
- Alt + 2
- Alt + 3
- Alt + 4
- Alt + 5
- Alt + 6

LibreOffice/OpenOfficerako

Lematizazioa aktibatuta badago (1. Hasierakoak eta eskakizunak atalean azaldu den bezala), sartutako hitzaren lema posible guztien emaitzak erakutsiko dira. Bestela, hitza lematizatuta kontsulatu beharko da. (adibidez, “etxea” hitza kontsultatzeko bere lema bilatu beharko da, hau da, “etxe”).